

JAINKOAREN SEME ETA ALABA GARA

Modaz pasatutako baieztapena dela pentsa daiteke. Baina..., izadia bere distira beteak ikustean, nork ez dio noiz edo noiz bere buruari galdetu egintza harrigarri horren egileaz? Nork sortu ditu gizon eta emakumea, eta bere inguruko gauzez eta bere buruaz galdetzeko gaitasuna eman?

Ezagutzen ez dugun gauza asko eta asko dago unibertso honetan; ez dakigu, esate baterako, beste mundu batzuetan gurea bezalako bizirik dagoen ala ez... Baina jakin badakigu, eta erabakitasunez baieztatzen dugu, gure planeta honetan onena, kreazioaren gailurra, gizakia dela.

Gizakia da kreazioko maisulana. Egia da, askotan, inongo gizatasunik gabeko jarduera eta gertaeren (gosea, Iparralde-Hegoaldea desberdintasunak, baztertuak...) aurrean, askotan ankertzat jo ditzakegun jarduera eta gertaeren aurrean, gizakiaren handitasun hori zalantzan jartzen duguna eta guzti horiek noizbehinkakoak baizik ez direla pentsatu nahi duguna, nahiz eta, zoritxarrez lar hedaturik izan, noizean behingoak izateko.

Gizon eta emakume sortu gintuen... Biblian, kontaketa eder baten bidez azaltzen zaigu emakumearen sorrera: Jainkoak gizonari saihets bat kenduz sortu zuen eta gizonak emakumea ikusi zuenean zera esan zuen: "Hau nire haragiaren haragi da, nire hezurren hezur...". Esamolde horrekin, material beraz, asmo eta misio beraz, duintasun beraz sortuak izan garela adierazi nahi da. Berdinak gara eta, aldi berean, desberdinak; horrela, elkar aberasten dugu, elkar bilatzen dugu eta bizikide izan nahi dugu...

Hasiera liburuko kontakizunari dagokionez, bere helburua ez da jakin-mina asetzea edo galdera nagusiei erantzun zientifikoak ematea. Idazkia hitzez hitz hartu eta ulertzen saiatuz gero, idatzi zuenaren asmoaren aurka joko genuke. Kreazioaren eszenatokian gizona eta emakumea protagonista bezala aurkeztea da Hasiera liburuko lehen kapituluen helburu nagusia.

Garai guztietako gizon eta emakumeei dagokienez, Jainkoak maitasun hutsez egiten duen lehen hautaketa, "bere antz eta irudiko egitea" da. Desobedientziak eta bekatuak ez dute hautu hori zapuztuko. Jainkoak, hasieratik, gizakiaren bihotza erakarri nahi du, bere adiskidetasunean bizi dadin.

Hasiera 1, 1-2, 4a txatalean, unibertsoaren sorreraren kontaketa gailurrera iristen da, Jainkoak nagusitasunean jartzen dituen Adam eta Ebaren sorkuntzarekin. Gizakiaren sorrera, Jainkoaren maisulantzat jotzen da kontaketan.

Adam eta Eba alegiazko pertsonaiak dira eta gizaki guztiak, gizon eta emakume guztiak irudikatzen dituzte. Pertsonaia horien inguruan agertzen diren elementuak, bestalde,

mitikoak dira: paradisuko zuhaitzak, suge berritsu eta tentatzailea, galarazitako fruitua, lotsa sentitzea beren burua biluzik ikustean, paradisutik kanporatzea... Eduki sinboliko handiko mitoak dira.

Jainkoak, Bibliako pasarte honetan, gauzak sortzen dituenean, hirugarren pertsonan hitz egiten du: "Izan bedi argia..." Baina, gizakia sortzen duenean, lehen pertsonan hitz egiten du: "Egin dezagun gizakia...". Jainkoak bere gain hartzen du konpromisoa gizakia sortzen duenean. Berau da kreaioaren egintza perfektua. Haren ardurapean uzten du sortutako guztiaren gaineko zainketa eta nagusitasuna.

Gizon eta emakumeak elkar osatzen eta laguntzen dute eta berdinak dira duintasunean. Gizakiak ezinbestekoa du besteen konpainia, haiekin hartu-emana izateko eta haiek maitatzeko.

Jainkoak aske sortzen du gizakia eta honek on ala gaitz egiteko erabil dezake askatasun hori. Jainkoaren borondatea errespetatu ala atzera bota dezake. Bere bekatua, askotariko norberekoikerian datza.

Idazteuneko txatal hau ikuspuntu horretatik ulertzeak honetara garamatza:

- Maitasuna den gure Jainkoak gizonaren eta emakumearen arteko maitasuna bilatuz baizik ezin duela sortu ikustera. Jainko maitasunaren antz eta irudiko egindako gizakia besteak maite dituenean eta besteak maite dutenean bizi da osotasunean. Maitasunak bakarrik egiten gaitu betiereko, maitasunak bakarrik egiten gaitu sortzaile, ugalkor eta bizi-emaile.
- Jainkoak bere kreaturei, gizon eta emakumeari, dien maitasuna ezin dela desberdina izan esperimintatzera. Jainkoak berdintasunean maite gaitu. Denok bere eskuz eginak gara; berak berdin maite gaitu. Gizon nahiz emakume, denok jaso dugu Jainkoaren bizi-arnasa.
- Gizon eta emakumeoi ez dagokigula norabiderik gabeko bizitza, ez gaudela bertan behera utzita konturatzera. Jainkoa da gure bizitzaren sorburua; Jainkoa gizakiaren bidelagun da; Jainkoa gure bizitzaren azkenean ere bada... Berak egin, maitatu eta lagundu egiten gaitu. Jainkoak ez gaitu bertan behera uzten, guk bera utz badezakegu ere.
- Jainkoa ez dela gizakiaren lehiakidea ulertzera. Jainkoak ez du gure askatasuna mugatzen. Jainkoa ez da gure bizitzaren hariak gobernatzen dituen eskua. Jainko maitasunak beraiekin benetako maitasunean bizitzeko sortzen ditu gizona eta emakumea, ez arrastoan sartzeko. Benetan maitatzen duenak gizon eta emakume

askeak egiten ditu, ez esklaboak. Maitasunik ez izateak, Jainkorik ez izateak, horrek egiten gaitu beste hainbat jainkoren eta geure buruaren morroi.

Katekesirako Iruña eta Tuter, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako Ordezkaritza eta Idazkaritzek prestatuturiko *"Esnatu! 1. Gida pedagogikogik"* hartu eta berreginda.